



Gure bizitzako beste alor askotan egiten dugun bezala, edo egin beharko genukeen bezala, euskarak lehentasuna izan beharko luke IKTak erabiltzeko irizpideetan. Jar dezagun mugikorra euskaraz, nabigatzailea euskaraz, erabili dezagun euskal Wikipedia, euskaraz dauden aplikazioak lehenetsi ditzagun...



Era berean, sor eta publika ditzagun euskarazko edukiak: errezetak, iritziak, tutorialak, eskolako lanak, tesiak... Euskarak, bere txikitasunagatik, euskaldun guztion beharra du eta.

*Alain Urizar Oleaga*

**Ana Almandoz Forcén. M-etxea kolektiboko kidea.**  
**2020-02-28**